

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.-REN ESTATUTUAK

I. TITULUA.

1. artikulua.- IZENA.

Sozietatearen izena da SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA - ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.

2. artikulua.- IRAUPENA.

Sozietatearen iraupena mugagabea izango da. Sozietateak bere jardunari ekingo dio Merkataritza Erregistroko inskripzioa egiten duen egunean.

Merkataritza Erregistroko inskripzioa egin aurretik gauzatutako ekintza eta kontratuei (Sozietatearen izenean eginikoei) Legean xedatutakoa aplikatuko zaie.

3. artikulua.- HELBIDEA.

Sozietateak Gasteizen izango du egoitza, Wellington Dukea kaleko 2. zenbakian.

Sozietateak bulegoak ireki ahal izango ditu, Administrazio Kontseiluak horrela erabakiz gero. Administrazio Kontseiluak eskumena izango du baita ere egoitza soziala aldatzeko hiri beraren barruan.

4. artikulua.- XEDEA.

Hauek izango dira sozietatearen xedeak industriaren, merkataritzaren eta turismoaren sektoreetan:



- a) Enpresak sustatzea, azterlanak eginez eta aholkularitza zerbitzuak eskainiz enpresen kudeaketan, alderdi ekonomiko eta teknikoan eta enpresen interesekoak diren beste hainbat alderditan.
- b) Enpresa berrien sorkuntza sustatzea eta lehendik existitzen direnei zabaltzen laguntzea, arreta berezia eskainiz garapen teknologikoari eta esportazioari.
- c) Enpresen arteko jarduera bateratuak eta lankidetzak bultzatzea, baldin eta horrekin beren lehiakortasuna hobetuko badute.
- d) Enpresen saneamendu eta eraldaketa prozesuetan inplikaturako alderdien ahaleginak babestu eta osatzea, baldin eta bideragarritasun baldintza objektiboak betetzen badituzte.
- e) Ikerketa eta garapen proiektuak sustatzea prozesu eta produktu berrietan eta horiei lotutako zerbitzuetan.
- f) Sozietatearen xedearekin zerikusia duen bestelako jarduera oro.

Sozietateak ondoko hauek egin ahalko ditu bere xedea betetzeko:

1. Enpresei diru-laguntzak eta epe ertain edo luzerako kredituak eman, baita interes-tasa bereziekin ere, eta enpresak abalatu, Eusko Jaurlaritzak horren inguruan ematen dituen arauak betez.
2. Interes bereziko enpresen kapital sozialean parte hartu eta zeharka garatu bere xede sozial osoaren edo zati baten barnean sartzen diren jarduerak, sozietatearen xede berbera edo antzekoa duten beste sozietate batzuetako akzioen eta partaidetzen titulartasunaren bidez. Jarduera horiek aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzaren baimena behar da, eta kasu bakoitzerako ematen diren baldintzak bete behar dira.
3. Obligazioak edo antzeko tituluak jaulki, zeintzuk konputagarriak izan baitaitezke instituzioen aurrezpenerako funts publikoen koefizientean.
4. Finantza erakunde publiko eta pribatuen maileguak jaso. Aurrezki kutxek emandako maileguak arauketa bereziko mailegutzat har daitezke, indarrean dagoen legeriak ezarritako modu eta baldintzetan.
5. Diru-laguntzak eta bermeak jaso EAEko Ogasun Nagusiarengandik, Autonomia Erkidegoko beste instituzio eta erakunde publiko batzuegandik eta Estatuko sektore publikoarengandik.



5. artikulua.- JARDUERA-EREMUA.

Sozietatearen jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

II. TITULUA

KAPITAL SOZIALA. AKZIOAK:

6. artikulua.- KAPITALA

Kapital Soziala LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILIOI, SEIREHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA ETA SEIREHUN (452.632.600) eurokoa da, LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA HOGEITA SEI MILA, HIRUREHUN ETA HOGEITA SEI (4.526.326) akzio izendunetan banatua, horietako bakoitza ehun euro izendunekoa delarik, mota bakarrekoak eta korrelatiboki zenbakituak batetik (1) lau milioi, bostehun eta hogeita sei mila, hirurehun eta hogeita sei (4.526.326) zenbakira. Guztiek dauzkate eskubide politiko eta ekonomiko berberak eta oso-osorik izenpetuta eta ordainduta daude. 1 eta 4.526.326 zenbaki bitarteko akzio guztiak osoki ordainduta daude.

7. artikulua.- AKZIOEN FORMA. ESKURATZEA ETA ESKUALDATZEA.

Akzioak taloi liburuetan egongo dira eta korrelatiboki zenbatuta egongo dira. Tituluak indibidualak ala anitzak izan ahalko dira, azken kasu honetan, akzio kopurua hamarreko multiploa izan beharko delarik. Aukera dago behin-behinekoz inskripzio egiaztagiria egiteko, horiek ere taloi liburuetatik moztuko dira eta korrelatiboki zenbatuta egongo dira.

Akzioen Erregistro Liburua eramango da eta bertan idatziko dira eskualdatze guztiak, zehaztuz une bakoitzeko tituludunen izen-abizenak, edo sozietate-izena hala dagokionean, naziotasuna eta helbidea, bai eta haien gainean ezartzen diren eskubide errealak eta gainerako kargak.



Akzioak zuzenbidez onartutako bitarteko ororen bidez transmititu ahal izango dira.

Akzioak sozietatekoak ez diren pertsoneri —alegia, akziodunak ez direnei— bizien arteko ekintzen bidez transmititzeko, arau hauek bete behar dira, akzio horiekiko funtsezko kontratuzko hitzarmen gisa:

Akzio bat edo batzuk bizien artean transmititu nahi dituen bazkideak sozietatearen Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar dio modu frogagarrian akzioa edo akzioak transmititzeko asmoa, jasoko duen prezioa edo kontraprestazioa, transmisioaren oinarritzko baldintzak eta eskuratzaileraren izen-abizenak, helbidea eta inguruabarrak. Administrazio Kontseiluak bazkideei adieraziko die jakinarazpen horren edukia zein den, hura jasotzen duenetik hamabost eguneko epean.

Bazkideek transmitituko den akzioa edo akzioak erosi ahal izango dituzte, Administrazio Kontseiluak egindako jakinarazpenaren ondorengo hogeita hamar egunetan. Eroslehentasun-eskubidea bazkide bakar batek erabiltzen badu, akzioa edo akzioak erosiko ditu. Eroslehentasun-eskubidea bazkide batek baino gehiagok erabiltzen badute, dagozkien akzioekiko proportzian banatuko dira akzioak. Akzio bakar bat baldin bada, eroslehentasunez erosteko eskubidea erabili dutenek jabekidetzan jasoko dute, dagozkien akzioen proportzian.

Aurreko paragrafoan araututako eroslehentasun-eskubidea bazkide batek ere erabiltzen ez badu, Sozietateak erosi ahal izango ditu transmititu beharreko akzioa edo akzioak, baldin eta, aurrez, Sozietatearen Batzar Orokorrak kapitala murriztea hitzartzen badu. Kapitala murrizteko hitzarmenaren ondorengo hogeita hamar egunen barruan erosi beharko dira akzioak, eta horrela erositako tituluak erosketa-epearen barruan amortizatuko dira.

Artikulu honetan jasotzen den eroslehentasun-eskubidea bazkideen eta sozietatearen alde erabili ahal izateko, Ohiko Batzar Orokorrak ekitaldi bakoitzean finkaturiko prezioa ordaindu beharko diote bazkideek edo sozietateak transmititzaileari, edo, horri buruz ezer ere erabaki ez bada, kontabilitateko adituek adostasunez adierazten dutena.

Artikulu honetan jasotakoa zehatz-mehatz betetzen ez duten transmisioak deusezak izango dira, eta ez dute balio eta ondoriorik izango.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

8. artikulua.- AKZIOEK EMATEN DITUZTEN ESKUBIDEAK.

Akzio bakoitzak Legeak ezarritako eskubideak ematen dizkio bere titularrari.

III. TITULUA

SOZIETATEAREN ORGANOAK.

9. artikulua.- SOZIETATEA KUDEATZEA ETA ORDEZKATZEA.

Sozietatearen kudeaketa eta ordezkaritza Akziodunen Batzar Orokorrari eta Administrazio Kontseiluari dagozkie.

10. artikulua.- BATZAR OROKORRAK.

Batzar Orokorra behar bezala deituriko eta osaturiko akziodunen bilkura da. Bertan hartzen diren erabakiak bete beharrekoak dira bazkide guztientzat, baita ere aurka daudenentzat eta bertan egon ez direnentzat, Legeak bazkideei ematen dizkien eskubideak gorabehera.

11. artikulua.- BATZAR OROKOR MOTAK.

Batzar Orokorrak ohiko eta ez-ohikoak izan ahalko dira, eta Sozietatearen Administrazio Kontseiluak deitu beharko ditu.

Ohiko Batzar Orokorra urtean behin egin beharko da ezinbestean, ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan.

Ez-ohiko Batzar Orokorra bilduko da Sozietateko Administrazio Kontseiluak hala erabakitzen duenean, edo gutxienez kapitalaren %5 ordezkatzeko duen bazkide kopuruak notario bidez eskatzen duenean, eskabidean zehaztuz zeintzuk diren Batzarrean aztertuko diren gaiak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

12. artikulua.- DEIALDIA.

Ohiko eta Ez-ohiko Batzar Orokorrak Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta lurraldean hedapen handienetarikoa duen egunkari batean argitaratutako iragarki bidez deituko dira, gutxienez bilerarako eguna baino bi aste lehenago, eta bertan adieraziko da baita ere zein egunetan egingo den Batzarra bigarren deialdian (hala behar balitz) eta aztertu beharreko gai guztien zerrenda.

Gutxienez kapitalaren %5 ordezkatzan duten akziodunek Kontseiluari eskatuko baliote Ez-ohiko Batzar Orokor bat deitzea, honek Batzarrerako deia egingo du, eskabidea notario bidez egin zaion egunetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar egunetan.

13. artikulua.- BATZAR UNIBERTSALA.

Aurreko artikuluetan esandakoa gorabehera, Batzarra deituzat eta behar bezala osatuzat joko da edozein gairi buruz erabakitzeko, baldin eta, zuzenean edo ordezkaturik, bertan badago kapital sozialaren %100a eta bertaratuek aho-batez Batzarra egitea onartzen badute.

14. artikulua.- BATZARRETARA JOATEA.

Akziodun oro joan daiteke Batzar Orokorretara edo bera ordezkaturiko duen beste pertsona bat bidal dezake, baldin eta beste hori ere akzioduna bada. Ordezkaritza idatziz eta berariaz eman beharko da Batzar bakoitzerako.

Administratzaileek Batzar Orokorretara joan behar dute. Batzar Orokorrari dagokio zuzendari, kudeatzaile, teknikari eta sozietatearen ibilbidean interesatutako beste edonor bertara dadin baimentzea edo, hala baderitzo, agintzea.

15. artikulua.- MAHAIAREN ERAKETA, EZTABAIDAK, ERABAKI HARTZEAK.

Administrazio Kontseiluko presidentea mahaiburu izango da Akziodunen Batzar Orokorrean. Presidenteak huts eginez gero, presidenteorde exekutiboa izango da mahaiburu, halakorik balego; ez balego edo zernahi dela-eta bertaratuko ez balitz, Administratzaileen artetik adin nagusienekoa, eta bestela, bertaratutako akziodunen artetik akzio gehien dituen eta, bi berdinduta baleude, bien artetik adin nagusienekoa.



Batzarreko idazkari jardungo du Kontseiluan idazkari dagoenak. Honek huts eginez gero, bertaratutako akziodunen artean akzio gutxien dituenak, eta, bi berdinduta baleude, bietan adin txikikoenak.

Presidenteak zuzenduko ditu eztabaidak; idatziz eskatu duten akziodunei emango die hitza lehenik eta ondoren hitzez eskatzen dutenei.

Gai zerrenda osatzen duten puntuak banan-banan bozkatuko dira.

Akzio bakoitzari boto bat dagokio eta erabakiak baliozkoak izan daitezzen, indarrean dagoen legeak aurreikusten dituen bertaratuen eta gehiengoaren kopuruak iritsi beharko dira.

16. artikulua.- BATZAR OROKORRAREN ATRIBUZIO ETA ESKUMENAK.

Ohiko Batzar Orokorraren eskumenekoa izango da:

- a) Azken ekitaldiko Memoria eta Balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea Administrazio Kontseiluak aurkeztutako eta bertako kide guztiek izenpetutako Irabazi eta Galeren Kontuarekin batera.
- b) Administrazio Kontseiluak aurkeztutako eta bertako kide guztiek izenpetutako kudeaketa txostena aztertzea eta sozietatearen kudeaketari buruz egoki iritzitako erabakiak hartzea.
- c) Emaizaren aplikazioa ebaztea.
- d) Akzioak eskualdatzeko prezioa zehaztea Estatutu hauetako 7. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Legez edo Estatutuen arabera Batzarraren eskumenekoa den beste edozein kontu ohiko edo ez-ohiko bilera batean erabaki ahal izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

17. artikulua.- AKTAK, ZIURTAGIRIAK ETA ERABAKIAK GAUZATZEA.

Batzar Orokorretako ohiko eta ez-ohiko deliberamenduak aktan jasoko dira erregistro liburu berezi batean, eta presidentek eta idazkariak (edo beren ordezkariak) sinatuko dituzte. Akta Batzarrak berak onartuko du bilera amaitu ondoren edo, bestela, hamabost eguneko epean onartuko dute presidentek eta bi kontu-hartzailek, bata gehiengoak izendatua eta bestea gutxiengoak izendatua.

Batzar Orokorrean onartutako erabakiak idazkariak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira, presidentearen edo 24. artikuluaaren arabera presidente lanak egingo dituen pertsonaren ikus-onetsiarekin.

Behar bezala onartutako erabakiak banan-banan gauzatzeko, Batzar Orokorrek libreki izendatu ahalko du Administrazio Kontseiluko edozein kide.

Izendapen hori egin ezean, Estatutu hauen arabera Batzar Orokorren erabakiak ziurtatzeko gaitasuna duen edozeinek gauzatuko ditu erabaki horiek.

Nolanahi ere, xede horretarako edo modu orokorrean ahaldundutako pertsonari agindu dakioke erabakia gauzatzea.

18. artikulua.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA.

Administrazio Kontseiluak zuzendu eta administratuko du Sozietatea. Kontseilu horretako administratzaile kopurua ez da izango hemezortzi baino handiagoa, ez eta hiru baino txikiagoa, Batzar Orokorrek zehaztutakoaren arabera. Ezingo dute administratzaile izan maiatzaren 11ko 12/1995 Legearen eta gainerako legeria aplikagarriaren arabera bateraezintzat deklaraturako pertsonak.

Kontseiluak presidente bat izendatuko du bere kideen artetik eta pertsona hori izango da Konpainiako presidentea. Kontseiluak idazkari bat aukeratuko du. Pertsona horrek ez du zertan kontseilari izan, eta kasu horretan ez du botorik izango Kontseiluan aztertzen diren gaien inguruan.

Kontseiluak bere kideen artetik aukeratu ahal izango du presidenteorde exekutibo bat eta pertsona hori izango da Konpainiako presidenteorde exekutiboa; estatutu hauek presidenteari ematen dizkieten funtzio eta ahalmen guztiak baliatuko ditu, betiere presidentek berari dagozkion funtzio eta ahalmenak erabiltzea erabakitzen ez badu.



Administrazio Kontseiluko kideen eta idazkariaren izenak Merkataritza Erregistroan inskribatuko dira.

Pertsona juridiko bat Administrazio Kontseiluko kide izendatzen denean, izendapen hori Merkataritza Erregistroan inskribatu baino lehen, beste pertsona fisiko bat izendatu beharko da, bere ordezkaria hain zuzen, karguaren funtzioak betetzeko.

Administrazio Kontseiluko kideak ez du ordainsaririk izango, Estatutuetan hala zehazten delako, Batzar Orokorrak beste zerbait adostu ezean. Kasu horretan, lehenengo eta behin, Estatutuak aldatu beharko lirateke.

Nolanahi ere, Kontseiluak dietak edo konpentsazioak finkatuko ditu kideek bileretara etortzeagatik edo bestelako arrazoiengatik egin behar dituzten gastuak estaltzeko, kasu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

19. artikulua.- IRAUPENA ETA HUTSUNEAK.

Administrazio Kontseiluko kideak bost urterako hautatzen dira eta mugarik gabe berraukeratu ahalko dira gehienezko iraupen bera duten epeetarako. Hala ere, Batzarrak edozein unetan adostu ahalko du kide horiek Kontseilutik bereiztea.

Kontseilariei hainbat urterako eginiko izendapena iraungi egingo da epea igaro eta hurrengo Batzar Orokorra egiten denean, edo Ohiko Batzar Orokorra egiteko legezko epea gainditzen denean.

Kontseilariren bat kooptazioz izendatua bada eta Batzar Orokorrak izendapen hori berretsi badu, karguan geldituko da ordezkatzeko duen kontseilariari kargua betetzeko gelditzen zaion denbora amaitu arte, salbu eta Batzarrak kontrako erabakia hartu badu.

Karguak berritu edo berrautatuko dira izendapenak amaitu edo iraungitzen diren heinean.

Administrazio Kontseiluko kideren batek karguari uko egiten badio edo dimititzen badu, organo horrek berak onartuko du ukoa edo dimisioa, edo hala badagokio, Akziodunen Batzar Orokorrak.

Batzar Orokorrak edozein unetan erabaki dezake Administrazio Kontseiluko kideak Kontseilutik bereiztea.



20. artikulua.- KONTSEILUAREN BILERAK.

Administrazio Kontseilua deialdian adierazitako toki, egun eta orduan batzartuko da, presidenteak edo Estatutuen arabera haren zereginak hartzen dituenak beharrezkotzat jotzen duen guztietan. Nolanahi ere, Kontseiluak bilera bat egin beharko du hiru hilean behin.

Kontseiluaren bilerak ez dira ezinbestean egoitza sozialean egin behar, baliozkoak dira halaber beste edozein tokitan egiten direnak, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badira.

21. artikulua.- DEIALDIA EGITEKO ESKUMENA DUTEN PERTSONAK.

Administrazio Kontseilurako deialdia egin behar dutenak:

- a) Presidenteak.
- b) Presidentea ez badago, gaixo badago, ezintasun fisikoren bat badu, karguari uko egin badio edo dimititu badu, bere ordezkokoak egingo du deialdia.

22. artikulua.- DEIALDIA EGITEKO MODUA.

Administrazio Kontseiluaren deialdia idatziz egingo da, gutun edo posta elektronikoko bidez eta Kontseiluko kide guztiei helaraziko zaie. Bertan adieraziko dira Gai-ordena eta zein toki, egun eta orduan egingo den bilera.

Ez da beharrezkoa deialdia egitea, baldin eta kontseilari guztiek elkarturik aho-batez erabakitzen badute bilera egitea.

23. artikulua.- ERAKETA.

Kontseilua behar bezala eratuko da, baldin eta bertaratuen eta ordezkarien artean kontseilarien erdiak gehi bat biltzen badira. Kontseilari kopurua bakoitia bada, aurreko baldintza hori betetzat joko da, baldin eta bertaratutako eta ordezkaturako kontseilari kopurua bertaratu ez direnena edo ordezkazarik ez dutenena baino handiagoa bada.

Presidenteari edo haren ordezkoari gutun bat bidaliz emango da ordezkaritza. Ordezkaritza Kontseiluko bilera bakoitzerako eman beharko da, ordezkaritza orokorra ez baita baliozkoa.



24. artikulua.-

Administrazio Kontseiluaren bileretan presidentea izango da mahaiburu eta ez badago edo dimititu badu, bere ordezkoa. Azken hori ere ez dagoen kasuetan, adin nagusieneko kontseilariak beteko du presidente funtzioa.

Behar denean, kontseilari gazteenak ordezkatu du Administrazio Kontseiluko idazkaria, edo Kontseiluak bileran bertan erabakitzen duenak, hala egoki baderitzo.

25. artikulua.- ERABAKIAK.

Administrazio Kontseiluko bileretako erabakiak bertaratuen eta ordezkatu botoen gehiengoz hartuko dira. Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du, idazkariak izan ezik (kontseilaria bada salbu), eta kontseilariren batek beste baten edo batzuen ordezkaria badu (behar bezala emana), bere ordezkatu botoa eman ahal izango du.

Salbuespen gisa, Administrazio Kontseiluak Batzorde Exekutiboari edo kontseilari delegaturen bati eskuordetu diezaioke bere eskumenen bat eta eskumen hori bere gain hartuko duten administratzaileek Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa beharko dute eskuordetze hori baliozkoa izan dadin. Gainera, erabakiak ez du eraginik izango Merkataritza Erregistroan inskribatu arte.

Administrazio Kontseiluko presidentek edo bere ordezkoak eta, beraz, presidente funtzioa betetzen duenak kalitatezko botoa izango du berdinketak ebazteko.

Posta bidezko bozketa, presidenteari edo bere ordezkoari bidalitako gutun zertifikatu bidez egiten dena, baliozkoa izango da soilik kontseilari guztiak ados badaude prozedura horrekin.

26. artikulua.- AKTAK.

Administrazio Kontseiluaren bileretako eztabaidak eta hartzen diren erabakiak akta liburu batean jasoko dira.

Idatzi ondoren, bileran izan direnek aktaren idazkera onartu beharko dute eta presidentek eta idazkariak (edo haien ordezko gisa aritu direnek) sinatuko dute.



Idazkariak akta horren ziurtagiriak egin ahal izango ditu, presidentearen edo presidenteordearen ikus-onetsiarekin.

27. artikulua.- AHALMENAK.

Administrazio Kontseiluak ahalmen hauek izango ditu:

- a) Presidente bat eta idazkari bat aukeratzea kideen artean. Azken hori kontseilaria izan daiteke ala ez. Presidenteorde exekutibo bat izendatu ahalko du kideen artean, presidentearen funtzioak egonkorki bete ditzan.
- b) Ohiko eta ez-ohiko batzarren deialdiak adostea, hala dagokionean eta behar den bezala, Estatutu hauei jarraiki, Gai-ordena idatziz eta egitekoak diren proposamenak formulatuz, beti ere deitzen den Batzarraren arabera.
- c) Sozietatea ordezkatzeko gai eta ekintza administratibo eta judizialetan, zibiletan eta merkataritza nahiz zigor arlokoetan, Estatuko Administrazioaren nahiz edozein motatako korporazio publikoen aurrean, edozein jurisdikziotan (arrunta, administratiboa, berezia, lan arlokoa, e.a.) eta edozein instantzian. Bere eskubideak defendatzeko dagokion ekintza oro egitea epaiketa batean edo epaiketatik kanpo, prokuradoreei eman beharreko ahalmenak emanaz eta abokatuak izendatuz sozietatea ordezkatu eta defendatu dezaten auzitegi edo organismo horien aurrean.
- d) Sozietatearen negozioak zuzentzea eta administratzea, beren kudeaketari etengabe arreta emanez. Horretarako ezarriko du bere zerbitzu tekniko eta administratiboak antolatu eta arautuko dituen administrazio eta funtzionamendu erregimena.
- e) Edonolako ondasun edo eskubideei buruzko era guztietako kontratuak sinatzea, egoki irizitako itunak edo baldintzak hitzartuta; sozietatearen ondasunen gaineko hipotekak edo bestelako karga nahiz eskubide errealak sortzea eta bertan behera uztea eta era guztietako pribilegio edo eskubideei uko egitea, ordainduta edo ordaindu gabe.
- f) Gobernuari proposatzea beste sozietate batzuetan parte hartzea edo sozietate berriak sortzea.



- g) Era guztietako banku eragiketak sinatzea eta bankuaren aurrean jardutea Sozietatearen izenean: kontu korronteak ireki eta ixtea nahiz erabiltzea; ganbio letretan esku hartzea libratzaile, onartzaile, abalista, endosatzaile edo edukitzaile gisa, kredituak irekitzea bermearekin edo bermerik gabe eta kreditu horiek bertan behera uztea; funts, errenta, kreditu edo baloreen transferentziak egitea, dirua ordaintzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz, kontuen saldoak onartzea, deposituak edo fidantzak kitatzea, eratzea eta erretiratzea, kontuak konpentsatzea, aldaketak formalizatzea eta diru-laguntzak eta bermeak onartzea. Horiek guztiak Espainiako Bankuan eta Banka Ofizialean egin daitezke, eta baita ere finantza erakunde pribatuetan nahiz Tokiko Administrazioetako, Euskal Autonomi Erkidegoko edo Estatuko Administrazioiko edozein organismotan.
- h) Ahalordedun orokorrak eta gai zehatzetarako ahalordedunak izendatzea.
- i) Sozietateko langile guztiak destinatzea eta kaleratzea, dagozkien soldatak eta esker-sariak esleituz.
- j) Bulegoak sortzea eta ordezkaritzak banatzea.
- k) Aurreko urteko abenduaren 31n itxitako ekitaldi ekonomikoaren balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua eta emaitzak aplikatzeko proposamena formulatzea, Ohiko Batzar Orokorra egiteko deialdia baino lehen. Memoria eta Kudeaketaren Txostena ere idatziko ditu indarrean dagoen legeriak ezarritako terminoetan.
- l) Bere funtzionamendua arautzea, Legeak edo Estatutu hauek bereziki aurreikusi ez duten orenen inguruan.

Zerrendatutako ahalmen hauek ez dira mugatzaileak, baizik eta soilik enuntziatzaileak, eta ulertzen da Kontseiluari dagozkiola espresuki Batzar Orokorrarenak ez diren eskumen guztiak.

28. artikulua.- PRESIDENTEAREN AHALMENAK.

Kontseiluko Presidenteari dagokio Konpainiaren Goi-zuzendaritza, Batzar Orokorreko eta Administrazio Kontseiluko erabakiak betearaztea eta Sozietatea ordezkatzeta. Era berean, funtzioagatik bereak dituen ahalmen orokorrez gain, ondo hauek ere badagozkio:

- a) Kontseiluaren bilerak deitzea eta gidatzea, ebazteko eta baliogabetzeko ahalmena izanez. Mahai-buru izango da Batzorde Exekutiboaren bileretan, non kalitatezko botoa izango baitu.



- b) Kontseiluko bileren gai-ordena zehaztea.
- c) Kontseiluko erabakiak exekutatu eta betearaztea.
- d) Kontseiluak espresuki bere gain utzitakoak.

29. artikulua.-

Inolaz ere ezingo dira eskuordetu Kontseiluaren ahalmen hauek: Batzar Orokorrari kontuak azaltzea eta Balantzeak aurkeztea. Ezingo dira eskuordetu ezta ere Batzar Orokorrak Kontseiluari emandako ez-ohiko ahalmenak, Batzar Orokorrak berak espresuki baimendu ezean.

Kontseiluak kontseilari bat edo batzuk izendatu ahalko ditu erabaki zehatz batzuk betetzeko.

30. artikulua.- BATZORDE EXEKUTIBOA.

Batzorde Exekutiboko kide izango dira presidentea, bi kontseilari hautetsi (bata gehiengoak izendatua eta bestea gutxiengoak) eta zuzendari nagusia.

Hala osatutako Batzorde Exekutiboak Administrazio Kontseiluak espresuki bere gain utzitako ahalmenak izango ditu.

31. artikulua.- ZUZENDARI NAGUSIA, SAILETAKO ZUZENDARIAK.

Administrazio Kontseiluak zuzendari nagusi bat eta Saisetako zuzendari bat edo gehiago izendatu ahalko ditu, egoki deritzen ahalmenak emango dizkie eta dagozkien ordainsariak zehaztuko ditu.

Zuzendariak edo zuzendariak, Kontseiluak emandako ahalmen guztiak izango eta baliatuko dituzte.

32. artikulua.- AHOLKULARITZA BATZORDEA.

Bere zereginak ahalik eta ongien betetzeko, Administrazio Kontseiluak gaitasun eta kaudimen aitortua duten profesionalen osatutako Aholkularitza Batzorde bat izendatuko du, 5/81 Legearen 6. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki, alde aurretik hala jakinarazita.



Kontseiluak emango ditu Aholkularitza Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendua erregulatuko duten arauak.

IV. TITULUA

EKITALDI SOZIALA, KONTULARITZAKO DOKUMENTUAK.

33. artikulua.-

Ekitaldi soziala urte natural bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da eta abenduaren 31n amaituko da. Salbuespenez, Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatzen den eguna izango da lehen ekitaldiaren hasiera eguna.

34. artikulua.- URTEKO KONTUAK FORMULATZEA

Kontseiluak gehienez hiru hilabeteko epea izango du, ekitaldi sozial bakoitza ixten den egunetik kontaktzen hasita, Balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua, emaitzen aplikazio proposamena, azalpen Memoria eta Kudeaketari buruzko Txostena formulatzeko, Sozietate Anonimoen Legean eta Merkataritza Kodean adierazitako moduan. Dokumentu horiek Kontu Ikuskatzaileek berrikusi beharko dituzte, zeintzuk Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako moduren batean izendatuko baitira, eta Administrazio Kontseiluko kide guztiek sinatuko dituzte. Horietakoren batek sinatzen ez badu, berariaz adieraziko da horren arrazoia sinadurarik ez duten dokumentu guztietan.

35. artikulua.- EMAITZEN APLIKAZIOA.

Batzar Orokorrak ebatziko du nola aplikatu behar den ekitaldiaren emaitza, onartutako balantzearen arabera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

36. artikulua.- KONTU GORDAILUA.

Urteko kontuak onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, Batzar Orokorrak urteko kontuak eta emaitzen aplikazioa onartzeko erabakien ziurtagiriak aurkeztuko ditu Merkataritza Erregistroan. Horiekin batera aurkeztuko dira baita ere kontu bakoitzaren ale bat, Kudeaketari buruzko Txostena eta Ikuskatzaileen txostena. Urteko kontuetako bat edo batzuk laburtuta formulatu badira, halaxe adierazi beharko da ziurtagirian, eta horren arrazoia ere bai.

V. TITULUA

SOZIETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA.

37. artikulua.-

Sozietatea Legeak ezarritako kasuetan desegingo da.

38. artikulua.-

Sozietatea likidatzeko, legeak ezarritako arauak beteko dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

ESTATUTOS SOCIALES DE LA SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.

TITULO I

Artículo 1º.- DENOMINACION.

La sociedad se denomina SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA - ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.

Artículo 2º.- DURACION.

La duración de la Sociedad será indefinida. La Sociedad dará comienzo a sus operaciones en la fecha en que tenga su inscripción en el Registro Mercantil.

En cuanto a los actos y contratos celebrados a nombre de la Sociedad antes de su inscripción en el Registro Mercantil se aplicará lo dispuesto en la Ley.

Artículo 3º.- DOMICILIO.

La Sociedad tendrá su domicilio en Vitoria, calle Duque de Wellington, 2.

La Sociedad podrá establecer oficinas mediante decisión del Consejo de Administración, quien será también competente para acordar el traslado del domicilio social dentro de la misma población.

Artículo 4º.- OBJETO.

En el ámbito del sector industrial, del sector comercial y del sector turístico, la sociedad tendrá por objeto:



- a) Contribuir a la promoción empresarial mediante la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión, económico, técnico y otros de interés empresarial.
- b) Fomentar la creación de nuevas empresas, así como la expansión de las ya establecidas, prestando particular atención al desarrollo tecnológico y a la exportación.
- c) Fomentar las actuaciones comunes y de cooperación entre empresas cuando ello conduzca a reforzar su competitividad.
- d) Apoyar con carácter complementario los esfuerzos de las partes implicadas en los procesos de saneamiento y reconversión de empresas, siempre que reúnan condiciones objetivas de viabilidad.
- e) Fomentar los proyectos de investigación y desarrollo, tanto de nuevos procesos como de nuevos productos y servicios conexos.
- f) Cualesquiera otras que tengan relación con el ejercicio de sus fines.

Además, en cumplimiento de sus fines, la Sociedad podrá:

1. Conceder subvenciones, créditos a medio y largo plazo, incluso en condiciones especiales de tipo de interés, así como avales a empresas de acuerdo con las normas que dicte al respecto el Gobierno Vasco.
2. Participar en el capital social de empresas de particular interés, y desarrollar las actividades integrantes de su objeto social total o parcialmente de modo indirecto, mediante la titularidad de acciones o de participaciones en sociedades con objeto idéntico o que constituya parte del objeto de la sociedad o sea análogo al mismo. Todas estas actuaciones quedan sometidas a la previa autorización del Gobierno Vasco y a las condiciones que en cada caso se determinen.
3. Emitir obligaciones o títulos similares, que podrá ser computables con el coeficiente de fondos públicos del ahorro institucional.
